

1)

Urriak 12  
/KANBO

09:30 - 16:30

Egun osoko idazkera mintegia  
HARKAITZ CANOrekin.

2)

Urriak 13  
/ITSASU

09:30 - 16:30

Egun bateko joko eta  
zuzendaritza ikastaro trinkoa  
AXUT! Kolektiboarekin.

3)

Urriak 18  
/LARRESORO


09:30 - 16:30

Norberaren egoera eta Euskal herriko  
sareen azterketa ARTEDRAMarekin.

IZEN EMATEAK\_  
tokiak@axut.eus

tokiak@axut.eus

IZEN EMATEAK\_  
TOKI HARTZEAK\_  
INFORMAZIOA\_



HARITUZ\_MINTEGIA · SARETZA  
KANBO\_ITSASU\_LARRESORO\_ORTZAIZE\_LUHUSO\_

HARITUZ\_



Euskal  
antzerkiaren  
saretze eta  
mintegiak\_

\_URRIAK 11·12·18



COMMUNAUTE  
D'AGGLOMERATION  
MIRIGONE  
ELKARSGA  
COMUNALITAT  
D'AGGLOMERACION

AXUT!



URZ  
AIZ





# SARETZA

## HITZ ESANA

Mejillon Tigre

60 min

Urriak 12  
**ORTZAIZE**  
Nanba liburu  
dendan  
20:30



Jarraian datorrena da iraganarekin eta haren kontra egin ahal izan dugun guztia. Poesia punkia, guri gustatzen zaigun poesia, gorputzarekin egiten den poesia, jasotzeko egiten den poesia, liburuetatik ahots goratuko den poesia.

Hitzak gure egin nahi ditugu, esan nahi dugu, esango den hitza nahi dugu

Bi gorputz, 15 bat pieza indibidual, eta poesia emanalditik baino kontzertutik gertuago egon nahi duen formatua.

## ERESIA

Oier Zuñiga

60 min

Urriak 13  
**ORTZAIZE**  
Goikoetxea  
poteria  
18:00



Ama hil da, hori da egia. Kantu bat, dantza bat, erritu bat... lore bat eskaini nahiko nioke.

Hildakoei gorazarre egiteko abesten ziren bertsoak dira Eresiak, baina nik jada, ez dut kanturik hildako ama agurtzeko.

Maite dugunaren heriotza datorrenean, zer egin? Nola agurtu? Nola begiratu bizitzari? Maitasuna da akaso guztiaren erantzuna?

Basati eta libre, Pantxix Bidart Plaren kantagintzaren laburbiltzeko hitz egokiak. Bigarren bakarlari lana aurkezten dauku. Bakarlari ez arras... Bere izenean atera zuen lehen lana bezala (eHe), bigarren lan hau kolaborazio baten emaitza da. Pantxixek sortu kantuak bainan Sabine Lécussant gitarista/erakasleak moldatuak. Zuzenean, musikariz lagundurik agertuko da Pantxix : Sabine Lécussant gitaran, Laura Bide eskusoinuan, Marie Hirigoien Bidart, zeharkako flauta eta ahotsean baita Raph Ferreira gitarapalan.

Hitzak, batzuk bereak, besteak Bitoriano Gandiagarenak.

Gaia, azken urte hauetako ildo beretik Euskal Herriaren bilakaeraz, hizkuntzaren egoeraz. Kantu tristeak? Eta ederrak ere agian!

## PANTXIX BIDART

60 min

Urriak 13  
**ORTZAIZE**  
Goikoetxea  
poteria  
17:00



Ibrahima kamioi batean zebilen aprendiz Ginean, egun batean amak deitu zuen arte: anaia txikia falta zen etxean. Eta haren bila abiatu zen. Basamortua gurutzatu; pasatzaile, polizia, bahitzaileekin topo egin; egarria, gosea, mina ezagutu. Afrikatik Europarako bidea. Mediterraneo zeharkatzen dutenak dehumanizatzea ezinbestekoa da haien heriotzen, kanporatzeen, ilegalizatutako bizitzen gaineko ezaxola zabaltzeko. Baina bizitza horietako bakoitza bakararra da eta, beraz, unibertsala. Eta kontatzeak hori azpimarratzen du.

Ibrahima Balderen bizitzaren kronika da antzezlan hau, hark ahoz kontatua, Amets Arzallusek idatziz jasoa, eta Artedramak antzerkera egokitua.

## MIÑAN

Artedrama  
Amets Arzallus Antia

90 min

Urriak 18  
**LUHUSO**  
Harri Xuri  
20:30



## HARITUZ

Elkarrekin arituz eta harituz sarea ehuntzen segituko dugu, gure lurraldean aurkitutako errealitatea kontutan hartuz eta eragileekin aitzina eginez, nor bere lekutik baina elkarrekin.